

NAZIOTASUN, NAZIO ETA GLOBALIZAZIO KONTZEPTUEZ GALDEZKA KOLONIALISMO OSTEKO AFRIKAN: AFRIKAKO LAU ELEBERRIREN TESTU AZTERKETA

Elda Hungwe

“Lecturer”a “English and Communications” Departamentuan
Chipo Hungwe

“Lecturer”a “Human Resource Mangement” Departamentuan
Midlands State University


Aipatzeko gomendioa || HUNGWE, Elda; HUNGWE, Chipo (2010): “Naziotasun, nazio eta globalizazio kontzeptuez galdezka Kolonialismo osteko Afrikan: Afrikako lau eleberriren testu azterketa” [artikulua linean], *452°F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 2, 30-47 [Kontsulta data: uu/hh/ee], < <http://www.452f.com/index.php/eu/elda-hungwe--chipo-hungwe.html> >.

Ilustrazioa || Mireia Martín

Itzulpena || Edurne Aldasoro

Artikulua || Jasota: 09/09/2009 | Komite zientifikoak onartuta: 13/11/2009 | Argitaratuta: 01/2010

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe.



Laburpena || Pepetela-ren *Mayombe*, Ngugi-ren *Petals of Blood*, Achebe-ren *Anthills of the Savannah* eta *A man of the People* liburuak aztertuz , artikulu honek naziotasun eta nazio kontzeptuez egiten du galde kolonialismo osteko Afrikaren testuinguruan eta kolonialismo osteko teoria ardatz hartuta. Kolonialismo osteko teoriak nazioa eta naziotasuna goraiatzan duen narratiba bikainari aurre egin eta narrazio horiek goitik behera deseraikizen ditu, arazo sorburu izan ohi baitira. Lan honek nazio hitzaren definizioari lotutako arazoak mahairatzen ditu, zeinetan hainbat kidek jarrera hartua duten. Berebat, nazionalismoaren ideia eta nazio bat osatzeko horrek duen garrantzia ditu aztergai. Aipatzen den bezala, naziotasuna gatazka arrazoi izan zen independentzi osteko Afrikan , nahiz eta, era berean, eginkizun zaila bete zuten dekolonizazioan zehar; izan ere, aldaketak genero-ezberdintasun modura hartzen dira eta etnizitateak nazio eraikuntza eragozten du. Halaber, globalizazioak ere mehatxatzen, aldarazten eta gutxiesten du nazioen izatea.

Gako-hitzak || Pepetela | *Mayombe* | Ngugi | *Petals of Blood* | Achebe | *Anthills of the Savannah* | *A Man of the People* | Etnizitatea | Generoa | Globalizazioa | Naziotasuna | Nazionalismoa | Poskolonialismoa.

Abstract || Through the analysis of Pepetela's *Mayombe*, Ngugi's *Petals of Blood*, Achebe's *Anthills of the Savannah* and *A Man of the People*, this article interrogates concepts of nationhood and nation in postcolonial Africa within the framework of the postcolonial theory. Postcolonial theory defies grand narratives such as the nation and nationhood, hence deconstructs such narratives as they are problematic. This study shows problems associated with definitions of a nation in which some members are sidelined. Also explored is the idea of nationalism and its importance in forming the nation. It is revealed that nationhood is problematic in post independent Africa even though nationalism served a critical role during decolonisation because variations are noted as differences in gender and ethnicity disturb nation building. Globalisation is also threatening, challenging and undermining the existence of nations.

Key-words || Pepetela | *Mayombe* | Ngugi | *Petals of Blood* | Achebe | *Anthills of the Savannah* | *A Man of the People* | Ethnicity | Gender | Globalisation | Nationhood | Nationalism | Postcoloniality.

0. Sarrera

Nazioak sortu eta naziotasun identitatea talde identifikazioarekin lotzen hasi zen une beretik, eztabaida eta asalduraren iturri izan dira, haren mugak etengabe ezbaian jarri baitira. Nazio eraikuntzak goiena jo zuenean, naziotasunaren adiera eta asmoa gutxi gora-behera onartu egin ziren eta ondorioz, nazioak testuinguru finkotzat hartu ziren, gizarte prozesuak aztertu eta analizatu zitezkeen eremua. Bazirudien giza harremanak naturaltasun osoz garatzen zirela nazio bakoitzaren mugen barruan, eta era berean, harreman politiko eta diplomatikoak gertatzen zirela euren artean. Azterketa kritiko bat egin ahal izateko, naziotasunaren ideia oso da garrantzizkoa, argi asko erakutsi duen moduan sentimendu eta ekintza nazionalistaren gorakadak eta etengabeko ezegonkortasun eta berrantolaketa politikoak. Nazio zatiketa berriak ari dira sortzen eta nazio nortasunari buruzko auziak lehenago ez zuten garrantzia hartzen ari dira etnizitateari buruzko eztabaiden testuinguruan; berebat, ordezkari politikoaren molde berriak ari dira sortzen nazio mailaz goiti-beheiti. Eta ikuspegi honen baitan da ezinbesteko nazio/naziotasunaren kontzeptuaz galde egitea. Ikerketak testu kritizismoa darabil, azterketa-gaitzat hartzen dituen idatzizko iturri materialei aplikatzen zaien metodoa (Jankowski and Jeven, 1991: 62).

Honela, bada, ikerlana kolonialismo eta kolonialismo osteko aldiari mugatu zaio. Kolonialismo aldia Pepetelaren *Mayombe*-n islatzen da eta bertan agerian uzten dira bazterte ekonomikoa, menderatze politikoa eta baita agintaritzakolonialari aurre egiten dion kolonizaturiko jendearen erreakzioak ere. Nazio arazoak ikusten ditugu, inposiziorik gabe euren kulturak eskuratu nahi dituzten banako eta talde etnikoak besarkatzea bilatzen duen aldetik. Achebe-ren *Anthills of the Savanna*-k naziotasuna nola bereziki gizonezkoen eskumen modura sortzen den erakusten digu. Globalizazioaren mendean naziotasunaren ikusmoldeak zalantzan jarri eta nazio leialtasun zaharrak zokoratzen dituzten identitate multikultural eta transnazional berrien premia sortzen dute. Ngugi-ren *Petals of Blood* eta Achebe-ren *A Man of The People* liburuetan azpimarratzen da egoera hau.

0.1 Azterlanaren eta Literatur Aldizkariaren testuingurua

Naziotasun eta nazio identitatearen izaera Afrikako gizarte modernoan bihotzetatik nabarmen gertu dago, 1880 eta 1890eko hamarkadetan kolonialismo garaian Europako indar inperialek egin zituzten lurralde-mugaketan ondorioz. Bada, industrializatutako Europak lehengaiak hornitzeko jarri zuen begia Afrikan; halaber, eskuz egindako gaiantzat balizko merkatu izan zitezkeela ere ikusi zuten. Gainera, Taylorrek (1984) "Europar agintea lortzeko borroka" deitu zuenaren urrats modura ere kolonizatu zuten Afrika. Europako herrialdeak Europako botereen artean kontrolatzeko lehia bilakatu zen. Europarrek Afrika kolonizatzeko beste arrazoi bat izan zen haiek zuriak ziren aldetik afrikarrak "zibilizatu"

behar zituztela pentsatzen zutela. Parsonek (1998) azpimarratzen du 1920 urterako Hego, Erdi eta Eki Afrikako estatu gehienak zuzenean gobernatutako kolonia bihurtuak zirela. Mendebaldeko Afrikan, berriz, zeharkako gobernu kolonialak egiten zuen buru eta hainbat meatze eta nekazaritza-eremu konpainia kapitalistek ustiatzen zituzten. Era berean, garai hartan Europako heziketa akademikoa garatu eta diziplinatan banatuta zabaldu zen. Antolamendu hierarkiko berriak kolonialismo osteko balizko eliteei giza mailako ezagutza ez ezik, lanbide ezagutza ere ekarri zien. Heziketa hau, ordea, kolonialismoak sortutako eta maila apaleko tokiko funtzionarioen beharra asetzeko soilik ematen zen, edota misiolariak euren egiteko zibilizatzaileak zuten kontzientzia lasaitzeko. Nolanahi dela ere, kontzientzia nazionalista garatu zen eta honekkolonialismoaren aurka borroka egiteko hainbat mugimendu nazional sortzea ekarri zuen Afrika barruan. Horren eskutik liberazioaren aldeko gatazka ernatu zen, azkenean Afrikako nazio eta estatu ugariaren independentzia ekarri zuena. Honela, bada, naziotasunaren ideia askatasuna irabazi zuen gatazkan barneratu zen, izan ere, afrikarrek bere burua izaki fisiko-psikologiko modura identifikatu zuten, kokapen geografiko baten moldepean bizi zena. Talde honetako kideek abertzaletasun eta harrotasun sentimendu komuna zuten lotura nagusi.

Day and Thompson-ek(2004) adierazten duten legez, nazioaren garapena eta jatorria argitzen duten bi pentsamendu-eskola aurkajarri daude:eskola modernista eta eskola etnizista . Modernistek diote nazioa eta nazionalismoaren sustraiak ez direla modernizazioaren prozesu sozio-ekonomiko gorenaren alditik haratago hedatzen, hau da, industrializazioa, kapitalismoa, estatu modernoaren gorakada eta politikarekin lotutako aldaketa nagusiak (Gellner, 1983). Honen aldean, ordea, etnizistek defendatzen dute nazionalismoaren sustraiak aro moderno aurreko identitate etnikoetan aurkitu behar direla. Antony Smith-en arabera, (1991) nazioak moderno izan daitezkeen arren, beren jatorriak ez dira modernoak; are gehiago,hasierako etniak ezagutzen lagundu gaitzakete (alegia, leinu, mito, historia eta kultura partekatua duten giza taldeak, lurralde jakin batekin nolabaiteko elkartasun sena dutenak). Smith-entzat maxima da modernistek deskribatutako indarrek etniak suntsitu gabe eraldatzen dituztela. Andersonek (1991) defendatzen du nazio bateko kideak jendea behar duela irudipenezko ekintza bat gauzatu ahal izateko eta ekintza horren bitartez sekula ez ezagutu, ez eta ikusi ere egin gabeko beste batzuekin identifikatzen direla. Eta hori posible da zenbait baldintzaren betetzen badira eta idatzizko komunikabideen iritsierarekin, denbora eta espazio tarte luze-zabalean jendea elkartzeko gai baita. Andersonek adierazten du hizkuntza berean egunkari eta eleberri berberak irakurtzeko gai den biztanleria, aldi berean gai dela egunkarietan ageri diren horiek giza mundu berean bizi balira bezala ulertzeko, “adiskidetasun “sakon horizontala” partekatuz” (1991:16). Halaber, Andersonek (1983) subirotasuna naziotasuna adierazteko beste kontzeptu bat dela aipatzen du. Bereziki Ameriketako nazio estatuen eta nazioen sorkuntza du aztergai; Ameriketako ereduaren ezaugarri nagusia nazio bakoitza

botere subirano modura kontzeptualizatzen dela da nor bere eragin esparruekin.

Naziotasunaren berriazko diskurtsoei dagokienez, Calhoun-ek (1997) hamar ezaugarri bereizi ezberdintzen ditu. Horietako bat bera ere ez da ezinbestekoa, baina horiek guztiek batera elkarri lotutako kontzeptu eta suposizioen eredu osatzen dute, nazioaren eta jendearen gaineko errealitatea ezagutarazten digutenak.

Horiek barne hartzen dituzte mugak, zatiezintasuna, subirotasuna, jendearen interesekin bat egiteak aitortzen duen legitimitatea, jendearen mobilizazio eta parte hartzea, partaidetza zuzen eta indibiduala, kultura komuna, sakontasun historikoa, jatorri komuna eta lurraldetasuna. (4-5)

Nazionalismoaren diskurtsoak nazioak zein erataraz sortu diren zehazten laguntzen du. Esaterako, Andersoni jarraiki (1991), nazioak ulertzen dira gauza mugatu, subirano eta horizontalki uniformeak bailira, bakoitzean buru egin dezakeen egungo berdintasun eza eta esplotazioa aintzat hartu gabe. Naziotasun kontzeptuak kolonialismo osteko teoriaren ildoari jarraiki aztertuko dira luzaro. Literatur teoria edo hurbilpen kritiko modura, Ashcroft et al. i jarraiki (1995), kolonialismo osteko teoria kolonialismo aroko diskurtso, botere egitura eta gizarte hierarkiekiko konpromisoa eta desadostasun eza da. Kolonialismo osteko teoriak aurka egiten die nazio, naziotasun, nazionalitate eta antzeko narratiba handi edo definizio garbiei. Bada, kolonialismo osteko teoria, kolonialismoko diskurtsoen analisia deskribatzeko erabili ohi da, bigarren edo hirugarren munduan mendeko taldeen egoera eta esperientziak zehazteko. Berebat, teoriak Mendebaldeko ezagutzaren egiturak aztertzen ditu eta ezagutza honek Mendebaldeak egituratzeko baliatu dituen baldintzen gaineko hausnarketa egitera deitzen du. Nazioa eta nazionalismoa arazo iturri dira independentzi ostean, nahiz nazionalismoak rol kritikoa bete zuen dekolonizazioan zehar.

1. Azterlanaren helburuak

Azterlan honen helburua da naziotasun/nazioaren garrantzia finkatzea nazio eraikuntzaren egitekoan; berebat, globalizazioaren aldirian naziotasun/nazio kontzeptualizazioa baliozkotu nahi da, hala nola, emakumeek nazioan duten tokia kokatu nazio eraikuntzan duten garrantzia egiaztatzeko.

1.1 Nazio baten eraikuntzarantz – Pepetelaren (1983) *Mayomberen* analisia

Angola oparoa da baliabide naturaletan: olio gordailu aberatsak eta egurra ditu. Bada, mineral gordetegi izugarri horiek izan ziren, hain zuzen ere, lurralde honen kontrola (bai militarra, zein lurralde mailakoa, merkataritza arlokoa edo politikoa) izateko borrokaren arrazoi nagusi.

Van De Waals-ek (1993) kontatzen du nola bederatzigarren mende amaierarako Angola nazioarte mailan Portugalen inperio kolonialaren zati modura aitortua zen. Honela, bada, barne aldeko erresumak mendean hartuak izan ziren nekazari portugaldarrak bertan finkatu ahala. Eskulanaren eskasiak ekonomiaren garapena geldiarazi zuen eta ondorioz, lan bortxatuen esparrua portugaldarren politikaren bitarteko bilakatu zen. Kolonialismoaren atal modura, portugaldarrek asimilazio politika garatu zuten, frantziarrek ere erabili izan zutena. Asimilazioak -kolonialismoaren politika administratibo modura- Afrikako egitura sozio-ekonomikoak suntsitu zituen, afrikarra zen edozer erabat eta guztiz ezabatzea bultzatu zuen, metropoliko egiturekin ordezkatzeko soilik. Asimilazioaren helburu nagusia gizaseme frantses beltzak edo beltz portugaldarrak sortzea zen. Are gehiago, Tidy eta Leeming-ek (2005) diote asimilazio frantziararen ondorioz kolonia frantsesek Frantziaren hedapen trataera jaso zutela. Izatez, asimilazioa afrikarra zena besarkatzen zuen guztiaren errefusa zen. Ordea, portugaldarrek ez zituzten asimilazioaren abantailak guztiengana hedatu eta elitea soilik besarkatu zuten, ironikoki portugaldarren politikaren hipokresia hauteman zuen intelektual talde txiki bat. Honek guztiak kontzientzia nazionalistaren garapena ekarri zuen, indar kolonialen aurkako borroka armatuarekin iritsi zena gorenera. Van Der Waals-en iritzira, Angola Askatzeko Jendearen Mugimenduak (MPLA) indartu egin zuen kolonialismo portugaldarra suntsitzeko indar anti-inperialisten fronte batu baten borroka bizia beharrezkoa zela. Honek eskatzen zuen angolarrek fronte guztietan mobilizatu eta borroka egitea, hartara inperialismo portugaldarra ahuldu eta Angola herrialde aske bihurtu ahal izateko.

Testuinguru honetan idazten du Pepetelak (1983), Angolan gerrillari ohi izan baitzen eta iraultza armatuaren eskarmentua izan baitzuen, bere herrialdea askatzeko borroka egin zuen aldetik. Ez du, inola ere, ikuspegi arrazista batetik identifikatzea nahi. Bere gerra-izena hautatu zuen Angolako iraultzaren helburuekin bat zetorrela erakusteko. Gerrillak MPLA askapen mugimenduaren atal dira eta etsaia Estatuaren Defentsarako Nazioarteko Polizia (PIDE) koloniala. Pepetela Marxismoan sinesten zuen ikaslea zen. Nekazari eta langileak zituen helburu. Jauntxo zuri kolonialistek ekoizpen baliabideak monopolizatu eta afrikar natiboak jornalari izatera lerratu zituzten. Bi klase sozial hauen arteko harremana arrazaren araberakoa eta esplotatzailea zen.

Nazioaren ideiak kolonialismo osteko gizarteei euren irudi propioa sortzeko bide eman die, bide batez, inperialismoaren zapalkuntzatik euren burua askatzeko lana egiteko. Wallerstein-ek (Haralambos eta Holborn: 2005) dio kolonialistek bideratu zutela Afrika estatu subiranotan zatikatzea. Estatu hauek maiz jende multzo ezberdinak besarkatzen dituzte; esaterako, Mayomben, hainbat giza-talde bereizten dira, hala nola, Kikongo, Kimbundu, Fiote eta Umbundu. Honegatik guztiagatik aitortzen zaio nazionalismoari jendea elkarretaratzeko duen dimentsio psikologiko garrantzitsua. Calhoun-ek (1997: 99) nazioen eraikuntza soziala deskribatzen du eta bertan dio nazioak existitzen direla soilik

bertako kideek nortasun nazionalaren diskurtso-markoaren bitartez euren burua ulertzen dutenean. Eskuarki, benetako naziotasuna aitortzeko egitekoan nazioko hainbat kide, barnean bizi duten gatazkan gorpuzten dira. Esate baterako, mayomben MPLAk jendea bereganatzea lortu zuen hein handi batean. Hainbat garaipen lortu zituen mobilizazio, kontzientzia politiko, adore eta babes zibilaren esparruan, eta horixe da, hain zuzen, Joao Komisarioaren egitekoa. Jendetzaren edo taldearen indarra bakarka egiten dena baino askoz handiagoa dela konturatzen gara. Bistan da gerrilla eta zibilen arteko koordinazioa, azken hauek gerrillariei informazioa ematen baitiete. Izan ere, “ausardiak” langile klasea aintzatesten du, gatazkarekin bat egiten badute irabazten ari direlako sentimendua zabalduz. Nazio baten sorreran, nazio nortasuna oso da garrantzizkoa. *Mayomben* nortasun hori sortzen da Komisarioak jendetzarengan kontzientzia sortzen duenean.

Mayomben hainbat jende ezberdinen nahasketa irudikatzen da, baina, euren burua naziotzat hartzen dute. Bertan talde etniko ezberdinak ageri dira, Kikongo, Kimbundu eta Umbundu-ak eta pentsamolde nazionalista da horien guztien itsasgarri emozionala. Thierme-k (2003) nazionalismoa nazio estatuaren autonomia baieztatzen duen ideologi modura ikusten du eta, eskuarki, batasun nazionala eskuratzea edo kolonialismoaren kasu honetan, gobernu kolonialetik askatasuna lortzea, bilatzen duten mugimendu politikoen bitartez irudikatzen da. *Mayomben* irudikatzen diren Angola bezalako gobernu kolonialaren mendeko estatu afrikar gehienentzat nazionalismoa baliabide garrantzitsu bihurtzen da inperialismo eta kanpoko gobernuetatik askatasuna lortzeko egitekoan.

Appaiah-k (1992) dio nortasuna historiaren ekoizpena dela eta giza-nortasun bakoitza gizarteak eraikitzen duela eta historikoa dela. Ordea, *Mayombek* erakusten du kolonialismoaren historia bera partekatzea eta nortasun bera partekatzea ez direla gauza bera. Testuan agerikoa da ez dagoela nortasun bat guk askatasunaren borrokalarietat (MPLA) ezagutzen ditugun haientzat. Eleberriak askapen mugimendu nazional honetan bizi diren tentsioak erakusten ditu, Angolako giza-talde etniko guztietako jendea barne hartzen baitu: iparraldeko Kikongoak, erdialdeko Kimbunduak, hegoaldeko Umbunduak eta triburik gabe geratu diren beste hainbat. Askatasunaren aldeko borrokalari hauek *Mayomben* nolabait elkarlotzen dituen ideologia nazionalista da, Angola liberatzeko askatasun beharra.

Hasiera-hasieratik askatasunaren aldeko borrokalari batzuk besteetatik bereizten dituzten ezaugarri etniko horiek mehatxatzen dute Angolaren askatasunaren aldeko borroka. Izan ere, elkarrenganako mesfidantza eta gorrotoak astindutako borroka da. Eragiketa Buruak, Mundu Berrik, Ekuikuik eta Mirarik Borroka agortudelako errezeloa dute. Halaber, ez dira Beldurbako Komandantearekin fio, Kikongoa baita hura eta beraiek Kimbunduak. Komandoa bera tribalismoak eta anbizioak zatitzen ditu. Honela, bada, nazio borroka honetan, edo Basil Davidsonen hitzetan (1992) lurralde kolonialak eraldatzeko borrokan, kultura etnikoen ondarea nekosoa eta barneratzen zaila da, eta hortik, tribalismo modura

ikusitako kolonialismoaren pentsamolderako itzulera. Tribalismoa ideologia arriskutsu eta errealista modura deskribatzen da, kontzientzia nazionalistaren arrakasta kulunkan jartzen duena. Esate baterako, Komandanteak boluntarioak eskatu zituen Muatianvua aurkitzeko, erretreta ostean desagertua zegoela ikusita; ordea, ez zuen inork bere burua aurkeztu, Muatianvua destribalizatua zegoelako.

Nazionalismoa arazo bihurtzen da eraikuntza artifiziala delako. Eta hori horrela islatzen du Theory-k, hibridazioaren gizakundea den mulatoak. *Mayomben* bere bozak aurre egiten dio esentzialismoari, izan ere, nazioa Afrikako dibertsitate etnikoari muzin egiten dion eraikuntza politikoa baita. Ez dago nortasun afrikar homogeneous. Hemen sortzen den galdera da “bateratu al daitezke aurkatutako boz hauek?”. Tarrow-ek dio (2000) nazioa neurri erreaktibo zein proaktiboan bitartez euskarritzen dela hein berean. Izan ere, ideologia nazionalistek “itsasgarri emozionalaren” papera joka dezakete kanpotik mehatxurik ez dagoenean edota mehatxuak berehalakoa ez dirudienean; horretarako elkartasuna sustatzen dute harik eta nazio kideek gauza arrunta bailitzan onartzen dutenera arte.

Mayomben azpimarratutako beste arazoa, nazioaren sorkuntzari eta nazionalismoari dagokionez, misioen ugaritasuna da. Gerrillek nazioaren izenean misio edo egiteko pertsonalak abiarazteko joera dute. Pentsamolde nazionalistak aldarrikatzen du gerrilla guztiak askatasuna lortzeko ari direla borrokatzen, eta batek bere buruari egiten dio galde “noren askatasuna, baina?”. Nor bere interesak ditu. Esate baterako, Eragiketa Burua Cabindan ari da borrokan bere lurraldeak arerio gutxi izan dituzan. Theoryren egitekoa, berriz, arraza hibridoak onartzen ez dituzten mundu batean onespina izatea da eta gerrillena Angolan bakea, burujabetasuna eta gizarte berdintasuna eskuratzea. Euren helburua lortzeko bideak eta metodoak bereizi zituzten eta horrek borroka armatua barne hartu zuen.

Mayombek gainera partaide izatearen kontzeptua azpimarratzen du, bereziki nazio eraikuntzari begira. Nazionalismoaren teorizatzaile klasikoek nazioa entitate batu eta kulturalki homogeen modura azaltzen dute, Smith-en kasuan (1998) gune etniko baten inguruan eratutakoa. Ordea, gero eta kritizismo handiagoa erakusten dute gizarte teoriariek, haien arabera nazioa beti baitago auzitan, batik bat bertako kideen aldetik. Theory-k ildo honi jarraitu dio. Borrokarako duen konpromisoa ez zaio garatutako barne kontzientzia batetik etorri; ordea, kanpoko indar eragile baten ondorio da. Lehenengo, jatorria erabiltzen du bere burua definitzeko, bere kausa legeztatzeko. Berak onartzen du kolorezkoa dela eta halakoa den aldetik, nortasun krisia sufritzen ari dela, ez daki nongoa den eta honenbestez, dio: “Etsai amorratua bizi dut ene baitan, eta horixe dut indar eragilea” (Pepetela, 1983:1). Bere eginkizuna arraza hibridoak onartzen ez diren munduan onespina lortzea da. Bere metodoa gerrillekin bat egitea da. Theory arrazismoaren mitoa aldatzen ari da, nazio eraikuntzari dagokion heinean bereziki. Elementu honek suntsitu egiten du jendearen berdintasun oinarrikoa

eta beltzen alderdian borroka eginez, Theoryk erakutsi nahi du kolore ezberdintasunak ez duela axola; horren bitartez arraza desmistifikatzen du, nazio nortasunaren parametrotzat hartu behar den hura ez dela arraza erakusteko; identitateak kontzientzia partekatuaren pareko behar du izan. Bera Gabelarekin identifikatzen da, handik dator bera, errealitate material batetik eta ehuneko ehun Angolako hiritar dela egiaztatzen du.

Kontua da gerrilla guztiak ez daudela kontzientzia partekatu honi begira. Bera, bada, oinaze fisikoak zein espiritualak jasateko prestatua dago, baita heriotza ere Angolaren alde eta bertako biztanleen alde borrokatuz eta horregatik egiten dio uko basera belaun zauritua sendatzera itzultzeari. Familia uztearen aldeko aukera egin du bere nortasuna egiaztatzearen. Berebat, Theoryk desmistifikatu egiten du arrazaren kontzeptua nazioan. Ideia nagusia da talde sozialetan bizi izatea ideala dela, baina, ez gukeela ahantzi behar gizakiok oso konplexuak garela, baita gizabanako bezala ere.

Nazioa entitate homogeen modura ikusteak berdintasun adiera dakar berarekin eta honek jendearen arteko alde nabarmenak ezkututzen ditu, eleberrian erakutsi den moduan. Pepetelaren argudioa da nazio baten definizioak duen izaera homogeenaren muga etnikoak baino haratago joateko beharra dagoela, mendebaldeko ikusmolde batetik. Aldi berean, ordea, Mayombek kolonialismoaren aurkako borrokan nazioaren ideiak duen garrantzia azpimarratzen du. Izan ere, nazioaren ideia kolonialismoaren aurrean erresistentzia gune modura bereganatu baitute ia afrikar gehienek. Jendeak askapenaren aldeko gatazkan borroka egiten zuenean, unitate bakartzat hartzen zituzten, baina borrokan elkarrekin aritu arren, euren arteko aldeak azaleratzen segi zuten.

Amaieran erakusten den nazioaren argazkiak frogatzen du kolektiboaren sinkretismoak duen balioa, Beldurbakoren heriotzak agerian uzten duena. *Borrokarekin* batera emango diote lur, hilobi berean, eta honek bistaratzen du iraultza batean komandantea eta soldadua bat bera direla. Beldurbakoren heriotzak tribalismo eta indibidualismoaren hesiak gainditzen dituen kontzientzia nazionalistaren garapena dakar eta honek, epe luzera, gizabanakoak nazioa sortzea ekarriko du, non talde modura esku hartuko duen.

Miller-ek uste du (Day and Thompson, 1995: 6) nazioak sortueta irauten dutela jende multzo garrantzitsuen arteko pentsamendu eta elkar truke prozesu aktibo baten bitartez. Honela, bada, nazioa komunitate modukoa da eta bere baloreak eta identitateak aurrerabideko negoziazio eta gogoetaren mamia dira. Izan ere, praktika horiek (nazionalismoa) jende andana handiak kontzientziazio eta talde identitate batera elkarrekin eramateko, gidatzeko, pentsatuak daude. Nazionalismoaren diskurtsoak modu erabakigarrian laguntzen du nazioak sortzeko modua zehazten. Eta ildo honi jarraiki, Brubaker-ek (Day and Thompson, 2004: 11) iradokitzen du gutxiago pentsatu beharko litzatekeela

nazioek duten garatzeko moduez eta aldiz, nazioa kategoriatu modura barne hartua dagoen molde ugarietan jarri behar litzatekeela gogoia, instituzionalizatua eta orokorki ezagutza marko modura finkatuta.

1.2 Afrikako Erronka Politikoen panazea: Nazioa defalikatzen Acheberen *Anthills of the Savannah*-n

Pepetelaren kontakizunak nazionalismoa soil-soilik gizonetzkoen egiteko modura erakusten digu, emakumeen bitzita beste edozertan oinarritzen den bitartean. *Mayomben* borrokatzen den askapen mugimendua gizonak egiten dute eta emakumeek, berriz, egiteko txikiagoetan ematen dute denbora, irakasten esate baterako. Naziotasuna kasu honetan berriaz gizonetzkoen eskubidea bailitzan ageri da, izan ere, askapena, kolonialismoa eta nazionalismoa moduko hitzei lotua baitago. Hitz hauek guztiz arrak dira, eta aldi berean, indarkeriari, barrentzeari, inbasioari lotuta daude; beraz, gizonetzkoen gerrilla da nazioa (emea) babestu behar duena. Acheberen (1987) *Anthills of the Savannah*-k defalikatzen du nazioa eta kolonialismo osteko Afrikan zenbateraino den hori ageriko islatzen du. Achebek erakusten du nola gizonetzkoen ezaugarri hauek ustelkeria, berekoikeria eta zikoizkeria indartzen duten eta horiek gobernu txarrak, eskubideen ukazioa eta kolpe militarrek ere eragiten dituzten, guztiak ere indarkeriazko direnak. Bada, Achebek ez du aintzat hartzen nazioaren kontzeptu hau *Anthills of the Savannah* liburuan.

Eleberria Kangan izeneko Mendebaldeko estatu afrikar fikziozkoan garatzen da, presidente diktatorial baten agindupean, inguru guztiz militarrean. Herrialdea gobernu ustel baten bidez eta esku gogorrek gobernatzeko du eta badirudi ez dagoela legebiltzarrik. Kolonialismo osteko Afrikan maskulinitateak jauntxo kolonialen isla ziren hein handi batean; honela, bada, Sam-ek burdinazko ukabila darama eta bere kabineteko guztiak zapaltzen ditu; ordea, egoera ironiko bihurtzen da emakume kazetari zuri batekiko tratuan goxo eta likatsu ageri denean.

Mugimendu nazionalistek nekez hartu ohi zuten emakumeen egoera abiapuntu gisa. Aldiz, nazionalismoak maiz arbuatzen ditu emakumeei dagozkien kontuak edo bazterrean uzten nazioaren norakoaren gaineko gertakari garrantzitsuagoak erabaki bitartean. Hence Enlore-k (Molande, 2004: 44) ondorioztatzen du nazionalismoa ia beti "oroipen maskulinitutik, apalkuntza maskulinitutik eta esperantza maskulinitutik" sortu ohi dela. Achebe, honenbestez, kale egiten duen nazio maskulinitua aldatzen ari da, beti kolpe eta iskanbila politikoei lotua dagoen aldetik.

Honela, bada, Beatrizek *Anthills of the Savannah*-n publikoki egiten dio desafio txobinismo maskulinoari zera diotenean: "emakume orok gizona bere burua osatzeko behar duela esatea, gizonetzkoen txobinismoaren astakeria izugarria da, guztiz arbuatu nuena Emakumeen Lib bezalako ezer zegoela jakin aurretik" (Achebe, 1987:88). Ikem-ek berak ere emakumeen zapalkuntza auzitan jartzen du. Emakumeen

zapalkuntzaren aurka informazioa emateko modua bilatu nahi du eta emakumeak behe mailakoak direlako ideia txobinistak erasotzen ditu. Berak emakumeei nazio eraikuntzarekin zerikusia duen orotan aitortzen die tokia bereziki. Beatrizek, emakumea denak, haurtzarotik garapenaren ikur modura egin du aurrera. Berebat, itxaropenaren ikur ere bada Kangango egoera politikoaren aurrean; izan ere, bertakoen ikuspuntutik, nortasun egokia erakusteak baliagarri baitirudi gizartean emakumearen emantzipaziorako. Amaechina, Elewa-ren haurra ere, Kanganen egoera politikoak aurrera egingo duenaren eta emakumezkoak Kangango gobernuan buru egiten duen statu quo egoeraren balizko itxaropen direlako esperantzaren ikur da.

Acheberen *Anthills of the Savannah*-k azkenean balioa ematen die emakumeei. Beatrizek Kangango kolonialismo osteko mundua Idazkariorde Nagusi modura betetzen du Finantzen Ministerioan eta bera da zerbitzu osoan ingeles hizkuntzan ohorezko matrikula duen bakarra. Alabaina, sistema desorekatu batean emakumeen gutxiengo txiki bat ordezkatzeko du berak, non gizonezko afrikarrek heziketa betea jaso zuten bitartean, emakume afrikarrek, aldiz, hemeretzigarren mende erdialdean bezala, etxeko lanetarako eskoletan estetikarako gaitasunak jaso zituzten. Rose Une Mezu-k “Emakumezkoak Acheberen Munduan”en erakusten du Nigerian legeek emakumezkoa mugatu zutela eta ekonomia koloniala gizonezkoengana zuzendu zela, emakumearen tokia bazterrera utziz. Behin muga horiei eta emakumeek etxeko bizitza soila izan behar dutelako Europako patriarka-kontzepzio nagusiari gaina hartu ondoren, Beatrizek bere kideen begirunea irabazi eta elite iraultzailearekin bat egingo du, diktadura militarrek ezarritako zapalketaren aurka borroka eginez.

Achebek emakumeez duen ikusmoldea ere agerian geratzen da erabiltzen dituen izenen bitartez, hala nola, Nwanyibuife (“emakumea ere zerbait da”) eta Amaechina (“bidea ez ahal da inoiz itxiko”). Acheberen ikuspuntua da emakumeek gizonezkoek duten interes bera dutela nazioan eta honenbestez, alderdi interesdun modura eta askapenerako bidean parte hartzaile arduratsu modura ikusiak behar luketela izan. Achebek emakumezkoak nazioan barne hartzearen alde egiten du eta behin haiei dagokien tokia eman zaienean, orduan agian askapen eta berreskurapenerako bidea ez da inoiz itxiko.

Anthills of the Savannah-k erakusten du emakumeak aitzindari izango direla susperraldirako bidean, baina gazteria, langileak, laborariak konfiantzazko bidelagun dituztela. Militarrak maila baxuagoan egongo dira. Jende guzti honek hainbat giza talde ordezkatzeko ditu eta Achebek gizartea barneratzeko duen giza-ikuspegiaren erakusle dira. Klase sozial guztiek esku hartzen duten estatuko kontuetan, eta emakumeak askatasunaren bidean buru dira. Beatrizek hautsi egiten du independentzia osteko maskulinitatea, emakumeen jarreraren eraginak kutsatu ez duena. Kontakizun femeninoa Beatrizek ordezkatzeko du eta kontra-narrazio modura egiten du, Sam Presidenteari aurka eginez, erabilia eta mendean hartua izateari uko eginez. Gainera,

gobernuaren aurka eutsi diezaiokeen indarretako bat bailitzan ageri da. Emakumezkoen printzipioa nolabait nazio ultra-maskulino honen porrotak eragindako kaltea konpontzera dator. Ordena emakumeek berrezarri dute eta honenbestez, emetasuna garrantzitsua da nazioaren eraikuntzan. Gainera, Achebek iradokitzen du nazio maskulinoa ez dela ideala.

Morokvasic-ek (Day and Thompson, 2004) aitortzen du maiz sarritan emakumeek nazioa pertsonifikatzen dutela eta haiek direla horren ohore eta maitasunaren bozeramaile. Diskurtso nazionalistan emakumea nazioaren ama da, edo baita, sexu-objektua. Taldearen babesle eta eragile da, edo baita, taldearen beraren jabetza. Komunikabideek irudi sinboliko hauek arerioari aurre egin ahal izateko nazioa prestatzeko lanean erabili dituzte. Bada, nazioak genero arrastoa du barne-barnean eta maskulinitatea izan zen nazioaren oinarria. Berebiziko enfasia ematen zaio nazioaren sorreran eta kontzientzia nazionalen emakumearen egiteko sortzaileari. Bestalde, ekarpen biologikoa da; izan ere, emakumeak dira hurrengo belaunaldia sortuko duen nazioaren ama. Naziotasuna eraikitzeak gizotasunaren gaineko ezagutza berariazkoa ez ezik, emetasunaren gainekoa ere barne hartu ohi du. Kasu honetan generoa nazioaren adieran guztiz barneratua dago, zer den nazionala izatea, nazio bateko kideek nola jokatu beharko luketen. Acheberen iritziek Beatrizen bitartez desadostasun eta auzia sortzen dute honek Ikem-en begiak irekitzen dituen eta hari bere politika eta ezagutzaz hitz egiten dionean... “bere pentsamolde politikoan ez duela emakumeentzat egiteko garbirik eta ez dirudiela hori ulertzeko gai denik” (Achebe, 1987:91). Eta halaxe azpimarratzen da emakumeen izaera hau Ngugi-n (1997), Wanja-n *Petals of Blood*-en eta Wariinga-n *Devil of the Cross*-en (1982), hirurak ere rol aktiboak jokatzen ari baitira nor bere nazioaren historian, neskame-egitekoak, makurrak edo itxura hutsezkoak onartzera bultzatu edo xaxatuak izateari uko eginez.

Heziketa, egonarri eta bizirauteko nahiaz ondo jantziak, emakumeek ez diote mugarik jartzen euren gaitasunari eta Achebek gizarte afrikarretan emakumeen boz indartsuen premiazko beharraz ohartarazten du, eta bihotzez sinesten du: “ mundua Gizonaren begien aurrean puskatan txikitzen den bitartean, Emakumeak bere gorentasunean txukundu eta garbituko ditu zatikiak” (Achebe: 89).

1.3 Globalizazioa – Nazio/Naziotasunarentzat mehatxua: Ngugi-ren *Petals of Blood* eta Achebe-ren *A Man of the People* liburuen gaineko azterketa.

Bi eleberrigileek, Achebe eta Ngugi-k, nazioaz egiten dute galde eta onartzen dute horren gaineko uste osoak orain susmopean jarri behar direla. Lekuko nagusien sentikortasun globalak isilpean geratzen dira eta nazioa geografikoki eta kulturalki espazio integratu modura irudikatze nobelagileak duen beharrea barneratua. Egile biek globalizazioari aurre egiten diote nazioaren osotasunarentzat mehatxu direlako; izan ere, nazionalismoak nazioa bere kezka guztien erdi-

erdian kokatzen baitu eta nazio-burujabetza, nazio-batasuna eta nazio-nortasuna indartzea baitu helburu (Smith, 2001). Emenyonu-k (2006) defendatzen du nazioa oraindik kontzientzian metatutako oroitzapen modura existitzen dela, jendeak espazio berrian eman dezakeen erantzuna zehatz dezakeena.

Globalizazioak muga politikoak gero eta garrantzia txikiagoko bihurtzen ditu, izan ere, hesi mentalak ez ezik, fisikoak ere gainditzen baititu. Harvey-k (1989) duen denbora-espazioaren trinkotzearen adiera eraginkor bihurtu da globalizazioa ulertu ahal izateko. Harvey-rentzat mundua gero eta txikiagoa da teknologia berrikuntzen ondorioz, jendeak eta lehengaiak sekula baino azkarrago bidaiatzeko aukera ematen baitute, distantzia -komunikaziorako eragozpen den aldetik-murriztagoa baita. Aurrerapen teknologiko hauek elkarlotura gero eta handiagoa errazten dute eta hori globalizazioaren gaineko eztabaiden osagarri nagusia da. Zenbaitentzat, nazio-estatuaren aroa jada igarora da. Held-ek (Day and Thompson, 1994) dio gobernu nazionaletan aktore ospetsuek jarraitzen badute ere, jada ez direla gobernu edo aginte molde nagusi. Esate baterako, eremu transnazional zabaleko aktoreek postu garrantzitsuak betetzen dituzte politika globaletan, eta horietan barne hartzen dira erakunde multinazionalak, giza mugimendu globalak eta erakunde transnazionalak, Merkataritzako Mundu Erakundea eta Nazio Batuak modukoak. Nolanahi dela ere, Holton-ek (1998) defendatzen du naziotasunaren erakargarritasuna eta nazio-estatuaren ideia desagertzetik urruti daudela, nazio nortasunaren eta nazioa oinarri duten sentimenduak sendoak eta iraunkorrak baitira. Eta ildo horretan erakusten du nola maiz elkarren aurkakotzat jo izan diren globalizazio eta nazionalismoa, ez direla ezinbestean elkarren aurkako. Honela, bada, diasporako biztanleria kideek komunitate global bateko partaidetzat har dezakete euren burua euren jaioterri nazionalarekiko loturak gordez eta aldi berean adopzioko komunitateko hiritartasunari eutsiz. Are gehiago, Vhutuza and Ngoshi-k (2008) argudiatzen dute nazionalismoak gizateriak diraeino eta gizarteetan justizia eza auzitan jartzeko elkarteak sortzen dituen bitartean iraungo duela. Iritzi bereko da Smith (1998), subirotasuna galtzeak ez duela ezinbestean nazionalismoa ihartzea zertan berekin ekarri defendatzen baitu. Nahiz globalizazioak hau guztia mehatxupearan jartzen duen, jendeak bere burua nazio mailan identifikatzen du, esate baterako Zimbawen Askatasunaren Eguna bezalako nazioaren egunen ospakizunen bitartez. Badira, gainera, arrazoi politiko sendoak nazio estatuak aktore giltzarri izaten jarraitzeko. Izan ere, ekonomiaren hazkuntzan eta atzerriko kapitala erakartzen beharrezko baldintza ekonomiko, politiko eta sozialak ezartzeko egitekoa dute. Honenbestez, naziotasunaren erakargarritasuna gutxitzetik urrun dago, harik eta nazio nortasunaren sendotasun eta iraunkortasunak eta nazioa oinarri duten sentimenduek dirauten duten.

Ilmorog zaharra *Petals of Blood*-en “aurrerapenak” suntsituko du. Ngugi-k lau pertsonaiak, Munira, Abdullah, Wanja eta Karega urrutiko Ilmorog-en kokatzen ditu, zeinetan zaharregiak, gazteak eta ahulak soilik bizi

baitira. Ilmorog-eko biztanle zahar gutxi batzuk, Nyakinyua Wanja-ren amonak esate baterako, herriaren antzinako loriaren oroitzapen txiki bat eskaintzen dute. Antzinako Ilmorog deitoratzen du eta aldiz, Mzingo, Chui eta Kimeria-k herriaz mintzo direla zera diote:

Ilborog Krapf eta Rebman-en garaia gogorarazten duen hemeretzigarren mendeko herrixka txiki bat izatetik herri industrial moderno bihurtu dela, Gagarin eta Armstrong ostean jaiotako belaunaldiek ere harro bisitatuko dutena... (Ngugi: 5)

Lehorte latz batek herritarren biziraupena larriki mehatxatzen duenean, Karegak euren Legebiltzarreko Kideari laguntza eske Nairobira ordezkari batzuek bidaiatzea iradokitzen du. Ngugik Nairobin ordezkari egindako harrera kolonialismo osteko Kenyan hainbat goi mailako erakunderen hipokresia salatzen du. Ilmorog herriko ordezkariak hiriburu nazionalera egindako biran *Petals of Blood*-ek aurrerapenak herri zaharrari eragindako txikizioa kontatzen du. Herrian berehala hartuko dute leku hiritik bidegabe gehitzen ari diren haiek, elizak, polizia-etxeak, Afrikako ekonomia bankuak eta azkenean Trans Afrikako errepideak. Ilmorog berria herri hobea da, hiriko bizio guztiez osatua, esplotatzaile berekoi arbuigarrienen gidaripean dagoena, hala nola, Kimeria, Mzingo eta Chui. *Petals of Blood* Kenyan kolonialismoaren indarrak suntsitu ondoren idatzi da.

Chui bat-batean egingo dio traizio bere jendeari; ez du “eskolan inongo zentzugabekeriarik ikasi nahi Afrikako historiaz, Afrikako literaturaz, eta bere argudioa da historiak eta literaturak ez dutela norberaren larruarekin zerikusirik”. Baina edozertarako gune bat behar da izan, ikasteko abiaburu izango dena; esperientziak ezberdinak dira eta honenbestez, ez dago berdintasunik, ez behintzat kulturari dagokionez. Ngugi-k, bada, unibertsalismoari eraso egiten dio eta Afrikako elementu bereizgarriak ezberdintzea nahi du eta ez globalizazioak edo unibertsaltasunak horiek lausotzea. Ngugik defendatzen du eskarmentu beltz bat badagoela eta beltzek izan behar dutela euren dagozkien kontuen gaineko kontrola. Politika, negozioak eta hezkuntza dira Ilmorog itoazaziko duten eragile nagusiak, hasiera bateko ezaugarri gehienak saihesten dituzten konplexutasun ideologikoetan sartuak baitaude.

Wanjak bere buruari Mendebaldeko baloreez erakarria izaten uzten dionean, emagalduta bihurtzen da soil-soilik edertasuna, duintasuna eta osasun oneko itxura izan dezan, azkenean laboraria izatera itzultzen da. Nyakinyua, berriz, jendearen oroimen-bankua da, bere jendearen historiaren gordailua eta bere oroimena kolonialismoaren aurkako lehenengo erresistentzia garaira itzuli da. Bera da lehenaldiko hizlariarekiko lotunea, belaunaldi gazteei informazioa helaraziko diena. Zaharrek gazteei informazioa ematen diete historiaren oroimen-banku diren aldetik eta honenbestez, globalizazioaren aurrean ere, gai dira globalizazioari aurre egin eta beraz aldarazteko ere, euren lehenari lotuak bizi baitira. Ilmorog-eko jendeari Theng'eta nola prestatu ere irakatsiko dio, kulturari inspirazio iturri den edaria; horren bitartez

jendeak nolabait iraganari lotuta jarraituko du eta guztien artean esperientzia kolektiboa izango dute. Historia jendearen oroimen-banku bihurtzen da eta jendeak ikasgaiak ateratzen ditu hortik; horiek guztiak lotune eta aingura dira etorkizunean aurrera egin ahal izateko. Honela, bada, *Petals of Blood*-en ahots ezberdinen bitartez, euren esperientziak kontatzen bat datozen ahots komunak ditugu, Wanja, Munira eta Karegarena, esaterako.

Burgesiak jendearen ekimenak akabatzen etorri diren indar erreakzionarioak ordezkatzeko; esate batera, Nderi ministroak Theng'eta infusio komertzial bihurtzen du eta berak bakarrik eta ez beste inork ekoizteko lizentzia eskuratuko du. Errepide transnazionalak ere Ilmorog zeharkatzen du eta horrek esplotaziorako bide ematen du. Fanon-ek (1963) maila ikasiaren prestakuntza eza aztertzen du, haien eta jende masaren arteko lotura praktikorik eza. Adibidez, Nderi ministroa nekez erlazionatzen da hautesleekin ministro modura. Erdi mailako klase nazionala estualdian dagoela esaten da, ama lurraren burgesia ordezkatzeko saiatzen ari baita. Ekoizpena eta euren barrutiaren garapena helburutzat hartu beharrez, aberastasuna metatzeko kapitalean jartzen dute gogoia eta begia. Nanga Burua eta Nderi-k ez dute inongo harremanik euren jendearekin, baina ospetsuak dira duten aberastasun, etxe handi-zabal, luxuzko auto eta bizimodu garestiak direla eta. Haien psikologia enpresa gizonarena bera da. Nanga ministroak esate baterako, herritik igarotzen den bidea breaz estaltzea nahi du, hamar autobus erosi dituelako. Honenbestez, burgesia kapitalismoaren lanabes bihurtzen da eta porrot egiten du nazioan erabilgarri izateari dagokionez.

Globalizazioak esplotatu, iraindu eta umiliatu egiten du Afrika, esklabutzak eta kolonialismoak egin zuten hein berean; eta hori hala islatzen du Ngugik *Petals of Blood*-en, non behinola Ilmorog eta Runaini lotzen zituen trenbide izan zen bideak, egurra, egur-ikatz eta koltza azala Ilmorog-eko basoetatik ekartzen zuenak, baso osoa irentsi duen, eta behin euren asmoak beteak dituztela, bi errailak kendu eta lurra errepide bihurtu zuten. Atzerriko konpainiek baliabideak ahitzen dituzte eta baliagarri ez direnean bazterrean uzten, Afrika umiliatu eta irainduz.

Konpainia transnazionalak ekonomia globala kontrolatu nahi duten erakunde boteretsu bihurtu dira, nazio estatuak ikerketa erakartzeko inguru lehiakorra eskaintzera behartuak sentitzen diren bitartean. *A Man of the People*-en, gobernuak tokiko industria sustatzearen alde egin zuen. Adibidez, Atzerriko Merkataritza Ministerioak ehungintzako hainbat artikuluko ehuneko hogeiko igoera izango zutela inportazioko zergetan jakinarazi zuen; ordea, Britainiar Amalgamatutako enpresak neurriak hartu zituen ehungintzako hiru kargamentu ekartzeko (Achebe, 1966: 99). Honela, bada, globalizazioak arma nagusi bat erabili du Hirugarren Mundua mundu globalera txertatzeko politika neoliberalen bitartez.

McLuhan-ek (1960) dio munduko merkataritza hedatzen ari dela

tokiko eta nazioko merkataritza baztertzeko eta aldi berean jendearen kontzientzia ere globalizatu egin dela. *A Man of the People*-en eliteak Europako artile gaiez egindako soineko garestiak janzten ditu, “Ingalaterran egindako % 100 artilea” idatzia duten etiketak dituztenak (Achebe: 1966: 64). Gazteek “italiar erako oinetakoak eta praka estuak” janzten dituzte eta neskek “ezpainetako kolorea eta ilea burdin beraz lisatua” daramate (Achebe: 94). Berebat, jaki globalen kontsumoa dago, koka-kola eta hanburgesak, esaterako. Menderapen kolonialaren esperientziak erakusten du esplotazioa betikotzeko ahaleginak berak ere populazioaren zati bat kulturalki alienatzea eragin eta garatzen duela, dela indigenak bereganatuz, dela indigenen elitearen eta masa popularraren artean giza geruza bat sortuz. Era honetara, gizartean gertatzen diren zatiketen ondorioz, populazioaren atal handi batek kolonizatzailearen moralitatea nabarmen bereganatzen du eta kulturalki bertako jendea baino jasoago irizten dio bere buruari, tokikoen kultur balioa gutxietsiz. Eta hau sendotu egiten da alienatutako taldearen giza hobariak areagotu egiten direlako. Nderi ministroak *A Man of the People* liburuan pribilegio horiek gozatzen ditu. Ministroen egoitzak izugarri handiak dira, zazpi logela eta zazpi bainugelakoak. Bere seme-alabak atzerriko eskolara joaten dira eta nekez mintzo daitezke afrikar hizkuntzan. Nderi-k Kenyako elite politiko, ekonomiko eta sozialaren ustelkeria eta diru-gosea irudikatzen du; honek gobernu britainiarretik askatzeko borrokaren ondoren ez dio lurraren aberastasuna bertako jendeari itzuli; ordea, giza bidegabekeria eta desberdintasun ekonomikoa sustatzen ditu, eraso kolonialistaren ezaugarri direnak.

Globalizazioari promesa ustelak egitea lepora dakiok. Ruigrok eta van Tulder-en hitzetan (1995) gobernu askok eta Mundu Bankua eta IMF bezalako finantza erakunde globalek, konpainia transnasionalekin batera, globalizazioak azken batean mundu osoko jendearen bizitza hobetuko duela aldarrikatzen dute. Globalizazioa dela garapen bidean den herrialde bati gerta dakiokkeen gauzarik ederrena eta marka eta merkatuak globalizazioaren atal modura toki guztietara zabaltzeak opartasuna ekarriko duela defendatzen dute. Mundu zabaleko jendearentzat etorkizun hobea eta haien arteko armonia agintzen du eta horrek guztiak epe luzera onura ekarriko du ekonomia eraginkor handiagoa eta mundu hobea izateko. Suposamendu horiek guztiek talka egiten dute *Petals of Blood*-en ikusten den ebidentziarekin, non garapenaren itxurapean laborariak euren lurretan hesiak jartzeko maileguak eskatzera eta kanpotik ekarritako ongarria erostera bultzatu zituzten. Ordea, gehienek ezin ordaindu izan zituzten maileguak eta ondorioz, euren lursailak kendu zituzten, gerora saltzeko eta era honetara, laborariak lurrik gabe gelditu ziren; hau guztia, globalizazioaren izenean, ez irabazirik, ez hobekuntzarik ez lortzeko.

Globalizazioaren ondorioak batez ere elitean indartu egiten dira Odilik zera esaten duenean:

euritatiek sartu, gorputza lehortu eta arropa lehorrak jantzi dituen gizona, denbora osoan barruan egon den beste inor baino uzkurragoa da berriz euritara ateratzeko. Gure nazio berriaren arazoa nik ikusten nuen moduan da... gutako inor ez dela barruan kanpora ateratzeko adina denbora egon. Guztiok egon gara euritan elkarrekin atzo arte (Ngugi: 37)

Eta jarraitzen du kontaktzen nola bere taldeko pertsona batzuk dotore eta zorte oneko bihurtu ziren eta nola egin zuten gora aurreko mandatariek utzitako aterpera aginteaz jabetzeko. Arestiko metafora indar handikoa da, izan ere, kontua baita Nanga bezala ezertxo ere ez izatetik guztia izatera igarotzen den pertsonari gehiago kostako zaiola berriz ere ezertxo ere ez izatera itzultzea, denbora osoan guztia izan duen hari baino; horregatik boterea eskuratzeko erasokorragoa eta botereari uko egiteko defendatzaileagoa da . Odilik azpimarratzen du nazio berria ez dela inoiz aterian egon, guztiak egon direla euritan, baina etsipenez behar zutela aterpe txikiren bat izatea. Aterpe hau globalizazioaren adierazpena da, gutxi batzuk gehiengoaren lepotik etekina ateratzera bultzatzen dituen.

2. Ondorioa

Artikulu honek ematen duen ikuspuntua da nazioa hitza erabateko ahuleziak jota dagoela, hitzaren adieratik beretik datorkiona. *Mayomben* azpimarratzen da pentsamolde komunek jendea elkar dezaketela eta nazionalismoak paper nagusia jokatu duela naziotasun kontzeptua indartzeko egitekoan. Ikerlanak erakusten du naziotasuna mehatxupean eta ahulduta dagoela mundua herri handi bat bilakatzen ari den bitartean, non muga politikoez garrantzi txikia duten. Subirotasuna mehatxatua dago gobernu nazionalak indarra galtzen ari direlako, izan ere, ez baitira aginte molde nagusia. Lan honetan, gainera, esaten da nazioaren eta naziotasunaren diskurtsoak, jende guztia nazio batean norabide berean eta intentsitate maila berarekin kateatu asmo duenak, ez duela berdintasun hori osotasunean islatzen ezen aldaketak eta ezberdintasunak generoa baitute ardatz eta nazioak genero bereizkeriak markatzen baititu.

Bibliografia

- ACHEBE, C. (1966) *A Man of the People*. Harare, Baobab books.
- ACHEBE, C. (1987) *Anthills of the Savannah*. Johannesburg, Heinemann Educational Publishers.
- ANDERSON, B. (1991) *Imagined Communities: Reflections on the Original Spread of Nationalism*. London - New York, Verso.
- ASHCROFT, B., GRIFFITHS, G., TIFFIN H. (ed) (1995) *The Post Colonial Studies Reader*. London, Routledge.
- DAVIDSON, B. (1992) *The Blackman's Burden. Africa and the Curse of the Nation State*, London, James Currey.
- DAY, G. and THOMPSON, A. (2004) *Theorizing Nationalism*. New York, Pulgrave Macmillan.
- EMENYONU, E. (ed.) (2006) *New Directions in African Literature*. Oxford, James Currey Ltd.
- FANON, F. (1963) *The Wretched of the Earth*. London, Penguin Books.
- GELLNER, E. (1993) *Nations and Nationalism*, Ithaca, Cornell University Press.
- HOLTON R. (1998) "Globalization and the Nation State" in *International Journal of Comparative Sociology*, 33 (1-2), 81-100.
- MOLANDE, B. (2004) "Politics of Rewriting: What Did Achebe Really Do?" in *Journal of Humanities* No.18, 38-54.
- MC LUHAN, M. (1994) *Understanding the Media: The Extensions of Man*, London, Routledge.
- NGUGI Wa Thiong'o (1997) *Petals of Blood*. Johannesburg, Heinemann Publishers.
- PEPETELA (1983) *Mayombe*, Harare, Zimbabwe Publishing House.
- SMITH, A.D. (1998) *Nationalism and Modernism*. London, Routledge.
- THIERME J. (2003) *Postcolonial Studies*. New York, Oxford University Press.
- VAN DE WAALS, W.S (1993) *Portugal's War in Angola 1961-1974*. Rivona, Ashanti Publishing
- VHUTUZA E and Ngoshi, H (2008) "Nationalism or Supranationalism in the 21st Century?" in *African Integration Review* Vol. 2, No.1 January 2008, African Union Commission.